



EDICIÓN XXVI. EDIZIOA
17-27 / 10 / 2024

BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIIKIDEAREN JAIALDIA
FESTIVAL DE TEATRO Y DANZA CONTEMPORÁNEA DE BILBAO
BILBAO FESTIVAL OF CONTEMPORARY THEATRE AND DANCE



badbilbao.eus



B
Bilbao

EDICIÓN XXVI. EDIZIOA
17-27 / 10 / 2024



BAD JAIALDIA
JASANGARRIAGOA IZAN DADIN
POR UN FESTIVAL BAD
MÁS SOSTENIBLE



Erabili garraio jasangarria

Utiliza transporte sostenible



Saihestu plastikoa

Evita el plástico



Birziklatu

Recicla



Aurreztu ura

Ahorra agua



Kontsumitu
0 kilometroko produktuak

Consume
productos km 0



ERRONKA GARBIA

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN EKITALDIA
EVENTO AMBIENTALMENTE
SOSTENIBLE

BABESLEAK / PATROCINAN



MINISTERIO DE CULTURA



LAGUNTZAILEAK / COLABORAN

EL CORREO



La FuNdiciOn



- 4 PROGRAMAZIOA/PROGRAMACIÓN
- 6 SARREREN SALMENTA ETA PREZIOAK / PRECIOS Y VENTA DE ENTRADAS
- 8 LEKUAK/SEDES
- 10 HARRIDURA SORTZEA ETA PROPOSAMEN ABANGOARDISTAK HURBILTZEA / SORPRENDER Y ACERCAR LAS PROPUESTAS MÁS VANGUARDISTAS
- 12 [LODUDO] PRODUCCIÓN "DIOSCURES"
- 14 ROSA ROMERO CÍA. "SOY UN BAILE"
- 16 MUSALOKA KOLEKTIBOA "ROJO NIEVE"
- 18 EDADEI 5 "DANTZA, ARTE DRAMATIKO, HEZKUNTZA ETA IKERKETA 5. TOPAKETA / 5º ENCUENTRO DE DANZA, ARTE DRAMÁTICO, EDUCACIÓN E INVESTIGACIÓN"
- 20 CÍA. SUSANNA BARRANCO "V7: EL ARTE DE SILENCIAR"
- 22 O RUMO DO FUMO "FALSOS AMIGOS"
- 24 DOOS COLECTIVO "HASTA EL ÚLTIMO BAILE"
- 26 HARREMAN "ENBOR(R)AK"
- 28 CAMÍNATE PROIEKTUA "PLAÑIDERAS. HISTORIA DE CONVERTIR UNA TRAGEDIA EN PRODUCTO"
- 30 LA COCINA "CALLA Y COME"
- 32 MARI PAULA "FRONTERIZAS IN-VISIBLE" "FRONTERIZAS"
- 36 MARI ZAUNKA "ERREKA ONDOAN, BI GEZUR A ORILLAS DEL RÍO, DOS MENTIRAS"
- 38 LAS KATASTROFEN TEATRO "BESTE BAT"
- 40 ION IRAIZOZ "SIMULACRO"
- 42 OLAIA VALLE "ENTRE MI CUERPO Y YO. LLORONA LLÉVAME AL RÍO"
- 44 AMARANTA VELARDE "DESBORDES"
- 46 JULIO RUIZ "TOCAR A UN HOMBRE"
- 48 LAIDA ALDAZ "IN PERSPECTIVE"
- 50 SERRUCHO "INTERIOR NOCHE"
- 52 JON ANDER URRESTI "EUKALYPTUS"

EGUNA DÍA	LEKUA SEDE	ORDUA HORA	LANA OBRA	DIZIPLINA DISCIPLINA	IRAUPENA DURACIÓN PUBLIKOA	JATORRIA PROCEDENCIA
OSTEGUNA 17/10 JUEVES	HARROBIA	19:00	[LODUDO] PRODUCCIÓN "DIOSCURES" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Dantza	50´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	FRANCE
	CÚPULA CAMPOS	19:00	ROSA ROMERO CIA "SOY UN BAILE" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Teatro- Danza- Performance	60´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	ANDALUCÍA
OSTIRALA 18/10 VIERNES	LA FUNDICIÓN	21:00	MUSALOKA KOLEKTIBOA "ROJO NIEVE" (Erabateko estreinaldia/ Estreno absoluto)	Clown- Nuevas dramaturgias	90´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	EUSKADI
	DANTZERTI	11:00 a 14:00	EDA DEI 5 Creación, educación e investigación artística	Jornadas profesio- nales		EUSKADI
LARUNBATA 19/10 SÁBADO	HARROBIA	19:00	CIA. SUSANNA BARRANCO "V7: EL ARTE DE SILENCIAR" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Performance- Nuevas dramaturgias	75´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	CATALUNYA
	CÚPULA CAMPOS	21:30	O RUMO DO FUMO "FALSOS AMIGOS" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Teatro- Performance	60´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	PORTUGAL
IGANDEA 20/10 DOMINGO	BILBOROCK	13:00	DOOS COLECTIVO "HASTA EL ÚLTIMO BAILE" Working progress: Artistak Egoitzan Artistas en Residencia - Bilbaoeszena	Dantza	45´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	EUSKADI
	CÚPULA CAMPOS	19:00	HARREMAN "ENBOR(R)RAK" (Erabateko estreinaldia/ Estreno absoluto)	Danza- Teatro	90´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	EUSKADI
ASTELEHENA 21/10 LUNES	HARROBIA	19:00	CAMÍNATE PROIEKTUA: "PLANIDERAS. HISTORIA DE CONVERTIR UNA TRAGEDIA EN PRODUCTO"	Dantza	55´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	EUSKADI
ASTEARTEA 22/10 MARTES	LA FUNDICIÓN	19:00	LA COCINA "CALLA Y COME" (Erabateko estreinaldia/ Estreno absoluto)	Teatro	105´ Helduentzat Público adulto	EUSKADI

EGUNA DÍA	LEKUA SEDE	ORDUA HORA	LANA OBRA	DIZIPLINA DISCIPLINA	IRAUPENA DURACIÓN PUBLIKOA	JATORRIA PROCEDENCIA
ASTEAZKENA 23/10 MIÉRCOLES	HARROBIA	18:30 (20´) 20:00 (50´)	MARI PAULA "FRONTERIZAS IN-VISIBLE" + "FRONTERIZAS" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Dantza	Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	CANTABRIA- EUSKADI
	HARROBIA	19:00	MARI ZAUNKA "ERREKA ONDOAN, BI GEZUR A ORILLAS DEL RIO, DOS MENTIRAS"	Dantza - Antzerki fisikoa (Elebitan)	50´ Adin guztietarako Todos los públicos	EUSKADI
OSTEGUNA 24/10 JUEVES	LA FUNDICIÓN	21:00	LAS KATASTROFEN TEATRO "BESTE BAT" (Erabateko estreinaldia/ Estreno absoluto)	Antzerkia (Euskaraz)	50´ Helduentzat Público adulto	EUSKADI
	CÚPULA CAMPOS	19:30	ION IRAIZOZ "SIMULACRO" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Teatro	75´ Helduentzat Público adulto	NAFARROA
OSTIRALA 25/10 VIERNES	LA FUNDICIÓN	21:30	OLATA VALLE "ENTRE MI CUERPO Y YO. LLORONA LLEVAME AL RÍO" (Erabateko estreinaldia/ Estreno absoluto)	Dantza	30´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	EUSKADI
	HARROBIA	19:00	AMARANTA VELARDE "DESBORDES" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Dantza	60´ Adin guztietarako Todos los públicos	CATALUNYA
LARUNBATA 26/10 SÁBADO	LA FUNDICIÓN	21:00	JULIO RUIZ "TOCAR A UN HOMBRE"	Dantza	60´ Adin guztietarako Todos los públicos	ANDALUCIA
	MUSEO SACRO	12:00 13:30	LAIDA ALDAZ "IN PERSPECTIVE" (Erabateko estreinaldia/ Estreno absoluto)	Danza- Site specific	45´ Adin guztietarako Todos los públicos	NAFARROA
IGANDEA 27/10 DOMINGO	CÚPULA CAMPOS	18:30 20:00	SERRUCHO "INTERIOR NOCHE" (Estreinaldia Euskadin/ Estreno en Euskadi)	Teatro de objetos	60´ +12 urte / años	MADRID
	LA FUNDICIÓN	20:00	ION ANDER URRESTI "EUKALYPTUS"	Antzerkia (Euskaraz)	60´ Gazte eta helduentzat Público joven y adulto	EUSKADI

2024KO BAD JAIALDIKO SARREREN SALMENTA ETA PREZIOAK PRECIOS Y ENTRADAS BAD 2024

BAD Jaialdiko sarrerak badbilbao.eus webgunean edo aretoen web orrietan eta takiletan eskuratu ahal izango dira aurretik: La Fundición-en eta Campos Elíseos Antzokian.

Urriaren 16ra arte erositako sarreren prezioa 8 €-koa izango da, eta ordutik aurrera, 10€-koa.

Ohar garrantzitsua: behin ikuskizuna hasita, ezin izango da aretora sartu.

Las entradas del Festival BAD podrán adquirirse anticipadamente a través de la web badbilbao.eus, o las páginas web y taquillas de La Fundición y Teatro Campos Elíseos.

El precio de las entradas adquiridas hasta el 16 de octubre será de 8 €, y a partir de esta fecha su precio será de 10 €.

Aviso importante: una vez dé comienzo el espectáculo no se podrá acceder a la sala.

HARROBIA ESKENA ARETOKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK ENTRADAS PARA ESPECTÁCULOS EN HARROBIA ESKENA

- Prezioa urriaren 16ra arte: **8€ badbilbao.eus web orrian.**
- Prezioa urriaren 16tik aurrera: **10€ badbilbao.eus web orrian.**

Honez gain, ikuskizunaren egun berean, hasi baino 30 minutu lehenagotik, takilan eskuratu ahaliko dira sarrerak 10 eurotan.

- Precio hasta el 16 de octubre: **8€ en la web badbilbao.eus**
- Precio a partir del 16 de octubre **10€ en la web badbilbao.eus**

Además, el mismo día del espectáculo, podrán adquirirse entradas, al precio de 10 €, en taquilla desde media hora antes del comienzo del espectáculo.

LA FUNDICIÓN ARETOKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK ENTRADAS PARA ESPECTÁCULOS EN LA FUNDICIÓN

Prezioa urriaren 16ra arte: **8€ La Fundición aretoaren web orrian, takilan edo telefonoaren bidez.**

Prezioa urriaren 16tik aurrera: **10€ La Fundición aretoaren web orrian, takilan edo telefonoaren bidez.**

Web orria: **lafundicion.org**

Telefonoa: **94 475 33 27**

Precio hasta el 16 de octubre:
8€ en la web, taquilla o reserva telefónica.

Precio a partir del 16 de octubre
10€ en la web, taquilla o reserva telefónica.

Web: **lafundicion.org**

Teléfono: **94 475 33 27**

CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIKO IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK ENTRADAS PARA ESPECTÁCULOS EN EL TEATRO CAMPOS ELÍSEOS

Prezioa urriaren 16ra arte: **8€ Campos Elíseos Antzokiaren web orrian edo takilan.**

Prezioa urriaren 16tik aurrera: **10€ Campos Elíseos Antzokiaren web orrian edo takilan.**

Web orria: **teatrocampos.com**

Precio hasta el 16 de octubre: **8€ en la web o taquilla del Teatro Campos Elíseos.**

Precio a partir del 16 de octubre **10€ en la web o taquilla del Teatro Campos Elíseos.**

Web: **teatrocampos.com**

DOAKO JARDUERAK / ACTIVIDADES GRATUITAS

Working progress DOOS COLECTIVO - BILBOROCK

EDADEI 5. Topaketa: Sorkuntza, hezkuntza eta ikerketa artistikoa - DANTZERTI
5 º Encuentro EDAEI: Creación, educación e investigación artística - DANTZERTI



LEXUAK SEDES

- 1_ Campos Antzokia
Bertendona, 3 Bis
- 2_ Harrobia
Langaran, 3 (Otxarkoaga). Metro L3
- 3_ La Fundición
Francesc Macià, 1-3
- 4_ Bilborock
Mesedeetako kalea, 1
- 5- Museo de Arte Sacro
Plaza de La Encarnación, 9b
- 6- Dantzerti
Plaza Ibarrekolanda, 1 (Conservatorio de Música Juan Crisóstomo de Arriaga)

HARRIDURA SORTZEA ETA PROPOSAMEN ABANGOARDISTAK HURBILTZEA

BAD Bilboko Antzerki eta Dantza Garaikidearen Jaialdiak antzerki, dantza eta dramaturgia berrietako proposamen berritzaile eta anitzen erakusleho bihurtzen du hiria. Jaialdi hau udazkeneko ohiko hitzordura helduko da gurera, zirkuitu komertzialetan ohikoak ez diren kalitatezko proposamen eszenikoak hurbiltzeko. Aurten, urriaren 17tik 27ra izango da, eta XXVI. edizioa ospatuko du.

Udalak, beste behin ere, lengoaia berrien aldeko apustua egingo du, ikusleei arte eszenikoen diziplinartekotasuna hurbiltzeko eta, batez ere, publikoa harritzeko BADen edizio berri honetako proposamenekin. Eta horixe da, zalantzarik gabe, edizio hau iragartzen duen kartelean laburbiltzen den jaialdiaren nortasun-ezaugarrietako bat: irudi bakar bat, dantzari, aktore edo performer bat izan litekeena, besoak modu dinamikoa eta irrealen mugituz, koreografia edo interpretazio baten parte izan litekeena. Horrela ikuslearen arreta erakarri nahi du, eta programazioaren proposamenetara hurbiltzeko interesa piztu.

Hamaika eguneko hitzordu bat kultura garaikidea maite dutenentzat, bai eta abangoardiako arte eszeniko dinamikoen labearien barruan zer jazotzen den lehen aldiz jakiteko gogoia dutenentzat ere, mundu osoan ezaguna den gastronomia bilbotar aberatsari keinu bat eginez. Dasta ditzagun, beraz, BADen edizio berri honen 22 funtzioak. Ziur asko, harritu egingo gaituzte eta zapore ona utziko digute ahoan.

Horren arduradun izango dira ohiko espazioetan jardungo duten 19 konpainiak, horien artean 9 bertokoak: Harrobia Eskena, Campos Eliseos Antzokia, La Fundación, Bilborock eta, aurten, Eleiz Arteen Museoa. Era berean, Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Eskolak hartuko ditu EDADEI jardunaldiak (Dantzari, Arte Dramatikoari, Hezkuntzari eta Ikerketari buruzko V. Topaketak), profesionalak elkartzeko foro garrantzitsua Jaialdiaren esparruan.

BAD 2024ren menuan 6 estreinaldi absolutu nabarmentzen dira: “Musaloka Kolektiboa”-ren *Rojo nieve*; “Harreman”-en *Enbor(r)ak*; “La Cocina”-ren *Calla y come*; “Las Katastrofen Teatro”-ren *Beste bat*; Olaia Valleren *Entre mi cuerpo y yo. Llorona llévame al río*, eta Laida Aldazen *In perspective*; Euskadin estreinaldi izango diren beste 8 espektakulurekin batera. Estreinaldi horiek, programazio osoarekin batera, publiko guztientzat (gazte nahiz heldu) pentsatutako karta bat osatzen dute. Hain zuzen ere, dantza, antzerkia, performancea, klowna, dramaturgia berriak, site specific eta bestelakoak eskainiko dira. Gozatu!

SORPRENDER Y ACERCAR LAS PROPUESTAS MÁS VANGUARDISTAS

El Festival de Teatro y Danza Contemporánea BAD Bilbao convierte a la Villa en el gran escaparate de las propuestas más innovadoras y diversas en teatro, danza y nuevas dramaturgias. Un Festival que acude a la Villa fiel a su habitual cita otoñal y que celebra este año, del 17 al 27 de octubre, su XXVI edición, para acercarnos propuestas escénicas, de calidad, poco habituales en los circuitos comerciales.

El Ayuntamiento sigue apostando una vez más por los nuevos lenguajes, para acercar al público la multidisciplinariedad de las artes escénicas y, sobre todo, sorprenderle con las propuestas en una nueva edición de BAD Bilbao. Y esta es sin duda una de las señas de identidad de un Festival que se condensa en el cartel anunciador de esta edición: una sola imagen que puede parecer bailarina, actriz o performer, con un dinámico e irreal movimiento de los brazos que puede formar parte de una coreografía o de una interpretación. Así que busca llamar la atención de quien lo vea y despertar su interés para acercarse a las diferentes propuestas de su programación.

Una cita de 11 días para las y los amantes de la cultura contemporánea y también para quienes tienen ganas de descubrir por primera vez -haciendo un guiño a la rica gastronomía bilbaina conocida en todo el mundo- qué se cuece dentro del horno de las siempre dinámicas artes escénicas de vanguardia. Saboreemos las 22 funciones de esta nueva edición de BAD, que a buen seguro nos van a sorprender y nos van a dejar un buen sabor de boca.

Los encargados de ello serán las 19 compañías, 9 de ellas vascas, que actuarán en los espacios habituales: Harrobia Eskena, Teatro Campos Elíseos, La Fundación y Bilborock, a los que se suma este año el Museo de Arte Sacro. Asimismo, la Escuela de Arte Dramático y Danza de Euskadi, Dantzerti, acogerá las jornadas EDADEI, el V Encuentro de Danza, Arte Dramático, Educación e Investigación, importante foro de encuentro de profesionales en el marco del Festival.

En el menú de BAD 2024 destacan 6 estrenos absolutos (*Rojo nieve* de “Musaloka Kolektiboa”; *Enbor(r)ak* de “Harreman”; *Calla y come* de “La Cocina”; *Beste bat* de “Las Katastrofen Teatro”; *Entre mi cuerpo y yo. Llorona llévame al río* de Olaia Valle y *“In perspective”* de Laida Aldaz; además de los 8 estrenos en Euskadi. Todos ellos, junto al resto de la programación, forman una carta pensada para todos los públicos, personas jóvenes y adultos, que podrán escoger entre danza, teatro, performance, clown, nuevas dramaturgias, site specific ... ¡A disfrutarlo!

Gonzalo Olabarria

Kultura eta Gobernantza zinegotzia
Concejal de Cultura y Gobernanza

[LODUDO]PRODUCCIÓN

DIOSCURES



OSTEGUNA 17
JUEVES
19:00
HARROBIA

50 min

DANTZA
DANZA

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

France-España

ESTREINALDIA EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

Kontzeptua eta koreografia

Concepto y coreografía:

Marta Izquierdo Muñoz

Koreografia laguntzailea eta kaskuen diseinua

Asistente de coreografía y diseño de cascos:

Eric Martin

Dramaturgia laguntzailea

Asesoramiento en dramaturgia:

Robert Steijn

Antzezleak/Intérpretes:

Thibaut Michel, Ébène

Argien diseinua/Diseño de luces:

Anthony Merlaud

Musika eta soinuaren diseinua

Composición musical y creación de sonido:

Benoist Bouvot

Eszenografia/Escenografía:

Alexandre Vilvandre

Osagarriak/Accesorios:

François Blaizot, Pascal St André

Teknika/Técnica:

Alessandro Pagli

Koprodukzio eta laguntzak/Coproducciones y apoyos:

La Place de la Danse-CDCN Toulouse/Occitanie,
Les Hivernales-CDCN Avignon/PACA, CCN de Tours,
Le Pacifique-CDCN Grenoble-Auvergne-Rhône-Alpes,
Scène Nationale d'Albi, Ballets de Lorraine, CCN
Nancy, Montpellier Danse, KLAP Kéleménis-Maison de
la Danse (Marseille), L'Arsenic Théâtre (Guindou)

"[Lodudo] Producción"-ek Kultura Ministerioaren
DRAC Occitanie zuzendaritzaren dirulaguntza jaso
du. Halaber, Okzitaniako Eskualdeko Kontseiluaren
laguntza jasotzen du garapen artistikoari
laguntzeko, bai eta Haute Garonne-ko Departamendu
Kontseiluaren laguntza ere, kultura-elkarteen
funtzionamenduari laguntzeko. Tolosa hiriak
ere bere proiektu zehatz batzuk babesten ditu
(Laboratoires All Style).

[LODUDO] PRODUCCIÓN está subvencionada por la
DRAC Occitanie, Ministerio de la Cultura. También
recibe la ayuda del Consejo Regional de Occitanie
en el marco del apoyo al desarrollo artístico,
así como del Consejo Departamental de Haute
Garonne en ayuda al funcionamiento de asociaciones
culturales. La Ciudad de Toulouse también respalda
sus proyectos puntuales (Laboratoires All Style).

LABURPENA

Madriilen hazi nintzen eta bertan ezagutu
nuen Mina Serrano; Frantziako Tolosan
bizi naiz eta bertan ezagutu nuen
Ébène. Biek daukate altuera itzela,
adin goiztiarra, fisikotasun berezia,
eta horrek Dioskuroen (Kastor eta
Polux biki banaezinak) irudi heroiko
eta tragikoarekin lotzen ditu. Edo
are gehiago, mendi batek, ez Olinpok,
baizik eta Pirinioek, banandutako Titan
anaia biek.

Erraldoi horiek, gizontasun monolitikotik
urrun, androginoak dira eta irudiaren
eta interpretearen arteko disonantzia
ahalbidetzen dute. Proiektuak ispilu
batean erakusten ditu, erreflexu
difraktatutako jolas konplexuetan,
erregistro eta koreografia-lengoaia
ugari eginez. Autorretratu berezi modura
ere irakur daiteke.

Dioscures lanak zalantzan jartzen
ditu mitologiako irudi bikien inguruko
maskulinitatearen kodeak.

KONPAINIA

Dantzaren mundura berandu iritsi zen,
Madriilen psikologia ikasi ondoren.
Marta Izquierdok Frantzian hasi zuen
ibilbide artistikoa eta, geroago,
"[Lodudo] Producción" konpainiarekin
bertan finkatu zen. Hamar ekoizpen
baino gehiago sortu ditu. Lanetako
batzuk dantza tradizionaletan eta
Proventzako dantzetan oinarritu
ditu, baita komunitate femenino
marginaletan eta herrikoietan ere.
Gainera, lurralde batekin lotutako
publiko espezifikoetara zuzendutako
proiektuak garatzen ditu.

SINOPSIS

Conoció a Mina Serrano en Madrid, don-
de creció; luego a Ébène en Toulouse,
donde vive. Comparten una estatura
imponente, una edad temprana, una
singular fisicalidad que me lleva a
vincularlos con la figura heroica y
trágica de los Dióscuros, los inse-
parables gemelos Cástor y Pólux, o
incluso con dos hermanos Titanes que
habrían sido separados por una monta-
ña, no el Olimpo, sino los Pirineos.

Estos gigantes, lejos de una viri-
lidad monolítica, son andróginos y
permiten una disonancia entre la fi-
gura y el intérprete. El proyecto los
expone en un espejo, en juegos com-
plejos de reflejos difractados, re-
corriendo varios registros y lengua-
jes coreográficos. También puede ser
leído como un autorretrato singular.

Dioscures cuestiona los códigos de
la masculinidad alrededor de figuras
gemelas de la mitología.

COMPAÑÍA

Llegada tarde al mundo de la danza
después de estudiar psicología en
Madrid, Marta Izquierdo inicia su
andadura artística como intérprete
en Francia, y allí se afincará más
tarde con su compañía "[Lodudo]
Producción", con la que ha creado
más de una decena de producciones.
Centra varios de sus trabajos en las
danzas tradicionales y provenzales, y
también en las comunidades femeninas
marginales y populares. Además
desarrolla proyectos destinados a
públicos específicos relacionados
con un territorio.



ROSA ROMERO CÍA.

SOY UN BAILE



OSTIRALA 18
VIERNES
19:00
CÚPULA
TEATRO CAMPOS

60 min

ANTZERKI-DANTZA-
PERFORMANCEA
TEATRO-DANZA-
PERFORMANCE

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

Andalucía

ESTREINALDIA EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

Sorkuntza, dramaturgia eta antzezlea/Creación, dramaturgia e intérprete: Rosa Romero
Dramaturgia laguntzaileak/Asistencia en dramaturgia: Alberto Cortés, Jaime Conde-Salazar
Gorputz laguntzailea/Asistencia en cuerpo: Silvia Balvín
Musika eta soinuaren espazioa/Música y espacio sonoro: Pitu García, David González
Argiak/Iluminación: Benito Jiménez
Zuzeneko soinua/Sonido en directo: David González
Jantziak/Vestuario: Gloria Trenado
Off Ahotsa/Voz en off: Miguel López
Ingeniaritza/Ingeniería: Pablo Pujol

LABURPENA

Gorputza desitxuratu egiten zait eta beste gauza bat izateko nahia agertzen da, beste existentzia-plano baten simulakroa, non gorputzak soinuak, objektuak edo dantza bat izan daitezkeen. Gaur egungo mekanika sistemikoak gorputzak kapitalizatzen ditu hainbestearaino, non kontraerasotzeko modu posible bakarra gorputzak suntsitzea den. Horretarako, alternatiba berriak asmatu beharko lirateke. Dantza izateak gorputz forma duina izan beharko luke.

KONPAINIA

Rosa Romero sortzaile cadiztarra Malagan lizentziatu zen eta urteetan zehar lan egin zuen sorkuntzarako eta esperimentazio eszenikorako interesa partekatzen duten kideekin batera. Gero, bakarkako bideari ekin zion 2013an, arreta gorputzean, oinordetzan hartutako dantza berreskuratzean eta ikusleekiko komunikazio gordinean jarriz. *Esta no es la vida privada de Rosa Romero*, *DEBUT* eta *Soy un baile* dira bere azken lanetako batzuk.

SINOPSIS

El cuerpo se me desdibuja y aparece el deseo de ser otra cosa, un simulacro de otro plano de existencia, donde los cuerpos puedan ser sonidos, objetos o un baile. La mecánica sistémica actual capitaliza los cuerpos hasta tal punto, que hace que la única forma posible de contratacar sea destruirlos. Para ello sería necesario inventar nuevas alternativas. Ser un baile debería ser una forma digna de cuerpo.

COMPAÑÍA

Rosa Romero, creadora gaditana, tras licenciarse en Málaga y trabajar durante años junto a compañeras y compañeros con quienes comparte el interés por la creación y la experimentación escénica, inicia su camino en solitario en 2013, poniendo la atención en el cuerpo, la recuperación del baile heredado y la comunicación bruta con las y los espectadores. *Esta no es la vida privada de Rosa Romero*, *DEBUT* y *Soy un baile* son algunos de sus últimos trabajos.



MUSALOKA KOLEKTIBOA

ROJO NIEVE



OSTIRALA 18
VIERNES
21:00
LA FUNDICIÓN

90 min

KLOWN-DRAMATURGIA
BERRIAK
CLOWN-NUEVAS
DRAMATURGIAS

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

Euskadi

ERABATEKO ESTREINALDIA
ESTRENO ABSOLUTO

Zuzendaritza eta oinarritzko ideia
Dirección e idea original: Silvia Larrauri

Sorkuntza kolektiboa/Creación colectiva:
Iñigo Sanz, Inés Vaquero, Silvia Larrauri

Antzezleak/Intérpretes:
Iñigo Sanz, Silvia Larrauri

Kanpo begirada/Mirada externa: Inés Vaquero

Mentoria/Mentoría: Pablo Ibarluzea

Argien diseinua/Diseño de iluminación:
Jose Villegas

Jantzien diseinua/Diseño de vestuario:
Mirari Aranburu

Soinua/Sonido: Sammy Metcalfe

Eszenografia/Escenografía:
Rodrigo Casillas, Elisa Pérez, Nacho Laseca

Teaser/Teaser: Sara Mauleón

ekoizpena/Producción: Musaloka Kolektiboa

LABURPENA

Lan samur, makur eta metamorfikoa. Esperimentu baten emaitza da: clownaren teknika hizkera berriekin elkartzea. Rojo nieve ogiaren eta heriotzaren jokoa bezalakoa da, irinezko doministiku handi bat, beste zerbait izateko zorian dagoen hondamendia, eta ogi-orearen bidez transmutatu eta zatikatzeraz jolasten diren bi okin.

Zintzoak izanda, pieza hau sortzeko prozesua hasi genuenean ez genekien oso ondo zertaz hitz egingo genuen zehazki. Eta orain, bukatu dugunean, antzera jarraitzen dugu, argilunez beteriko unibertso hau definitzen duen sinopsia aurkitzea kosta egiten zaigu. Hala ere, konfiantza osoa dugu berarengan; izan ere, hain gauza poliedrikoa, hain inkontzientea, hain hauskorra, hain dibertigarria eta hain zentzugabea aurkitu dugu, non gu, noski, kezkatu eta hunkitu egiten baikaitu. Gainontzekoak ere hala sentituko ahal dira.

(Zeliakoentzat egokia).

KONPAINIA

“Musaloka Kolektiboa” kolektibo eszeniko garaikidea da. Gasteizen du egoitza, eta Madril, Euskadi eta Kantabria artean dabil.

“Musaloka” taldeko kideek ibilbide luzea dute eta hainbat aldiz aritu izan dira lankidetzan. Orain, kolektiboan elkartu dira euren lehen pieza sortzeko: *Rojo nieve*. *Rojo Nieve* lanaren sorkuntza izan da Silvia Larrauri zuzendari artistiko gisa buru duen kolektibo hau agertzeko motorra.

Oraindik ere bere marka edo nortasun eszenikoaren bila dabilen taldea da baina, zalantzarik gabe, ikertzeko plazerak, hizkeren uztartzeak eta sorkuntza kolektiboak egituratzen dute. Batasunaren abiapuntua hauxe izan zen: Zer gertatzen da antzerki fisikoa (maskara eta clowna), hizkera berriak eta arte biziak elkartzen baditugu?

Azken finean, “Musaloka Kolektiboa” artista hasiberriek gidatutako proiektua da, artista finkatuek lagunduta eta bermatuta. Arte bizien, dramaturgia berrien eta gailu garaikideen aldeko apustua egiten dute, ondare eszeniko “klasikoenarekin” eta esperientzia estetiko hunkigarriarekin uztartuta.

SINOPSIS

Una obra tierna, siniestra y metamórfica. Este es el resultado de un experimento: juntar la técnica del clown con los nuevos lenguajes. Rojo nieve es algo así como el juego del pan y la muerte, un gran estornudo de harina, una ruina a punto de ser otra cosa y dos panaderos que juegan a transmutarse y despedazarse a través de la masa de pan.

Siendo sinceras, cuando empezamos el proceso de creación de esta pieza no sabíamos muy bien de qué íbamos a hablar exactamente. Y ahora que hemos terminado, seguimos parecido, nos cuesta encontrar una sinopsis que defina este universo repleto de claroscuros. Aun así confiamos plenamente en él, porque hemos hallado algo tan poliédrico, tan inconsciente, tan frágil, tan divertido y tan absurdo que a nosotras, desde luego, nos atraviesa y nos inquieta. Ojalá también al resto.

(Apto para celíacos).

COMPAÑÍA

“Musaloka Kolektiboa” es un colectivo escénico contemporáneo con sede en Gasteiz, que fluctúa entre Madrid, País Vasco y Cantabria.

Las integrantes de “Musaloka” tienen una larga trayectoria, durante la cual, han colaborado varias veces. Ahora se han unido en colectivo para generar su primera pieza: *Rojo nieve*. La creación de *Rojo nieve* ha sido el motor para que este colectivo liderado por Silvia Larrauri como directora artística, emerja.

Se trata de un elenco que aún está en la búsqueda de su propia marca o personalidad escénica, pero sin duda lo vertebran el placer de investigar, la fusión de lenguajes y la creación colectiva. El punto de partida de la unión fue: ¿Qué pasa si juntamos el Teatro Físico (la máscara y el clown), con los Nuevos Lenguajes y las Artes Vivas?

En definitiva, “Musaloka Kolektiboa”, es un proyecto liderado por artistas emergentes y acompañado y avalado por artistas consolidados. Apuestan por las artes vivas, las nuevas dramaturgias y los dispositivos contemporáneos, combinados con el legado escénico más “clásico” y una conmovedora experiencia estética.

EDADEI 5

DANTZA, ARTE DRAMATIKOA, HEZKUNTZA ETA IKERKETA 5. TOPAKETA

SORKUNTZA, HEZKUNTZA ETA IKERKUNTZA ARTISTIKOA

5º ENCUENTRO DE DANZA, ARTE DRAMÁTICO, EDUCACIÓN E INVESTIGACIÓN

CREACIÓN, EDUCACIÓN E INVESTIGACIÓN ARTÍSTICA

LARUNBATA 19
SÁBADO
11:00-14:00
DANTZERTI

Izen-ematea/Inscripciones: info@adddantza.org

11:00- 11:10

Ongietorria eta EDADEI 5en aurkezpena.
Bienvenida y presentación de EDADEI 5.

11:10-12:00

Laida Aldazek azalpen teorikoa emango du BAD jaialdirako egingo duen lanari buruz, Dantzertiko ikasle diren bi dantzariren laguntzaz.

Laida Aldaz ofrecerá una explicación teórica, con la asistencia de 2 de sus bailarinas y bailarines, alumnado de Dantzerti, sobre el trabajo que desarrollará para el Festival BAD.

12:00-12:15

“Desde donde partir hacia ninguna parte”. Nagore Tamayoren Gradu Amaierako Lanaren aurkezpena.

“Desde donde partir hacia ninguna parte” presentación de Trabajo Fin de Grado de Nagore Tamayo.

12:30-13:00

“De lo disciplinar a lo interdisciplinar. Formación artística para docentes”. Lourdes Cilleruelo. UPV/EHUren Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Sailak (Leioako Hezkuntza Fakultatea - UPV/EHU) Txileko lizeo artistiko bateko 50 irakasleko klaustroari eskainitako arte-prestakuntza.

“De lo disciplinar a lo interdisciplinar. Formación artística para docentes” Lourdes Cilleruelo. Formación artística realizada a un claustro de 50 profesores y profesoras de un Liceo artístico de Chile por parte del Departamento de Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal (Facultad de Educación de Leioa EHU).

13:00-14:00

Mahai-ingurua: “Creación, educación e investigación artística”.

Solasaldia entitate laguntzaile/antolatzaile bakoitzeko ordezkari eta gonbidatuekin.

Mesa redonda “Creación, educación e investigación artística”

Conversatorio con las personas representantes e invitadas por cada entidad colaboradora/organizadora.



CÍA. SUSANNA BARRANCO

V7: EL ARTE DE SILENCIAR



LARUNBATA 19
SÁBADO
19:00
HARROBIA

75 min

PERFORMANCE-
DRAMATURGIA BERRIAK

PERFORMANCE-NUOVAS
DRAMATURGIAS

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Catalunya

ESTREINALDIA EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

Zuzendaritza/Dirección: Susanna Barranco

Zuzendaritza laguntzailea/Ayudante de dirección: Juan Navarro

Testua/Texto: Susanna Barranco, Juan Navarro

Antzezleak/Intérpretes: Susanna Barranco, Rubén Ametllé

Espazio eszenikoa eta bideoa/Espacio escénico y video: Manel Barnils

Argien diseinua/Diseño de iluminación: Conrado Parodi

Jantzien diseinua/Diseño de vestuario: José Duarte

Argazkiak/Fotografía: Sandra Gross

3D inprimaketa/Impresión 3D: Ferran Silva

Ekoizpena/Producción: Cía Susanna Barranco, Temporada Alta, Mousiké

Ekoizpen laguntzaileak/Asistentes de producción: Yasmina Berkane, Txell Casas

Laguntzak/Apoyos: Temporada Alta, OSIC, ICUB, ICEC, L'animal a l'esquena, Dau al Sec

Eskerrak/Agradecimientos: Maï Pelo, Montserrat Casanovas, Annalisa Mirizio, Marta Azparren, Patricia Rodríguez, Nagore Arrizabalaga

LABURPENA

V7: el arte de silenciar antzerki-proiektuata, beldurrari eta adierazpen askatasunari buruzko ikerketa batetik abiatutakoa. Ikuskizunak sakonki lotuta daramatza zentsurak eta autozentsurak dakarten tentsioa eta eztabaida, pentsamendu askea eta adierazpen askea kontrolatzeko ideia gisa. Zeintzuk dira mugak? Zergatik zentsuratzen dugu? Zer onartzen dugu dibergentziatik?

SINOPSIS

El proyecto *V7: el arte de silenciar* es un proyecto teatral a partir de una investigación sobre el miedo y la libertad de expresión. El espectáculo lleva profundamente inscrita la tensión y el debate que conlleva la censura y la autocensura como ideas de control del libre pensamiento y de la libre expresión. ¿Cuáles son los límites? ¿Por qué censuramos? ¿Qué aceptamos de la divergencia?

KONPAINIA

Azken urteotan, "Susanna Barranco Konpainia"-k hainbat ikuskizun propio sortu eta ekoitzi ditu. Nabarmenezkoak dira *V7: el arte de silenciar* (2024), *Red Room* (2019-2022), Susanna Barranck eta Sol Picó batera zuzendutakoa, eta *Accions de Resistència*, 2020ko Antzerkiaren BBVA Sariaren irabazlea, besteak beste. *Forasters Vindran...* ekoitzi eta interpretatu du eta Marta Galánekin batera Lliure antzokian (2021).

COMPAÑÍA

En los últimos años, la "Compañía Susanna Barranco" ha creado y producido diversos espectáculos propios. Destacan *V7: el arte de silenciar* (2024), *Red Room* (2019-2022) codirigido por Susanna Barranco y Sol Picó, y *Accions de Resistència*, ganadora del Premio BBVA de Teatro 2020, entre otras. Ha coproducido e interpretado *Forasters Vindran...* con Marta Galán en el Teatre Lliure (2021).



O RUMO DO FUMO

FALSOS AMIGOS



LARUNBATA 19
SÁBADO
21:30
CÚPULA TEATRO
CAMPOS

60 min

ANTZERKI-PERFORMANCE
TEATRO-PERFORMANCE

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

Portuguesa-Gaztelera
Protugués-Castellano
Portugal

ESTREINALDIA EUSKADIN
ESTRENO EN EUSKADI

Kontzeptu eta performancea/*Concepto y performance*: Guillem Mont de Palol, Miguel Pereira

Argien diseinua/*Diseño de iluminación*: Hugo Coelho-Aldeia da Luz

Ekoizpena/*Producción*: O Rumor do Fumo

Ko-produkzioa/*Co-producción*: Teatro Viriato

Partaideak/*Socios*: Citemor, Institut Ramon Llull, La Poderosa, La Caldera, Teatro das Figuras

Laguntzak/*Apoios*: Câmara Municipal de Lisboa, Polo Cultural Gaivotas, Boavista, Fundação Calouste Gulbenkian, Novo Negócio, ZD8, Opart, E:P:E, Estúdios Victor Córdon

Egoitza artistikoak/*Residencias artísticas*: Citemor, Estudios Victor Córdon, Festival Salmon, Graner, Mercat de les Flors, Forum Dança, La Caldera, La Poderosa, O Rumor do Fumo, Novo Negócio, ZD8

Falsos Amigos La Poderosa espazioko (Bartzelona) CRUZADOS programaren esparruan sortu zen. "O Rumor do Fumo" Portugalgo Errepublikak finantzatutako kultura-egitura da (Kultura, Arteen Zuzendaritza Nagusia).

Garantir Cultura, Compete 2020, Portugal 2020 eta Europar Batasunak finantzatutako proiektua da, EGEF Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren bidez.

Falsos Amigos surge en el ámbito del programa CRUZADOS de La Poderosa (Barcelona). "O Rumor do Fumo" es una estructura cultural financiada por la República portuguesa (Cultura, Dirección General de las Artes).

Es un proyecto co-financiado por Garantir Cultura, Compete 2020, Portugal 2020 y Unión Europea, a través del Fondo Europeo de Desarrollo Regional-FEDER.

LABURPENA

"Sasiadiskideak" kontzeptua da abiapuntua, hau da, ortografia edo antzeko ahoskera daukaten hitzak, baina esanahi guztiz desberdinak dituztenak. Miguel eta Guillem adiskidetasun-harreman semantiko faltsu bati erakitzeko saiatzen dira, antzekoaren eta desberdinaren arteko kontraste-espazio batean kokatuz, haien eta errealitatearen beraren artean, hitzen, keinuen eta objektuen bitartez diskurtso absurdo, zoro eta dibertigarria sortuz.

KONPAINIA

Vera Manterok "O Rumor do Fumo" sortu zuen 1999an, eta harrezkero Kultura Ministerioaren babesia dauka. "O Rumor do Fumo" estatuan eta atzerrian sortzeko, ekoizteko eta hedatzeko egitura da. Dantza garaikidearen arloan ikertzen du, prestakuntza ematen du eta programatzen du, izaera esperimentalarekin eta ikerketa-izaerarekin. *Falsos Amigos* Miguel Pereiraren sormen-lan berria da, Guillem Mont de Palol koreografo katalanarekin batera egindakoa.

SINOPSIS

Partiendo del concepto de "Falsos amigos", palabras con ortografía o pronunciación similar que tienen significados totalmente diferentes, Miguel y Guillem intentan construir una falsa relación de amistad semántica, posicionándose en un espacio de contraste entre lo similar y lo diferente, entre ellos y la propia realidad, creando un discurso absurdo, delirante y divertido a través de las palabras, los gestos y los objetos.

COMPANHIA

Vera Mantero funda "O Rumor do Fumo" en 1999 y es apoyada desde entonces por el Ministerio de Cultura. "O Rumor do Fumo" es una estructura de creación, producción y difusión nacional e internacional. Investiga, forma y programa en el ámbito de la danza contemporánea con carácter experimental y de investigación. *Falsos Amigos* es una nueva creación de Miguel Pereira junto con el coreógrafo catalán Guillem Mont de Palol.



DOOS COLECTIVO

HASTA EL ÚLTIMO BAILE

(Artistak egoitzan-Bilbaoeszena Working progress)

(Working progress Artistas en residencia-Bilbaoeszena)



IGANDEA 20
DOMINGO
13:00
BILBOROCK

45 min

DANTZA
DANZA

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Euskadi

Idea eta zuzendaritza/Idea y dirección: Eva Guerrero

Bideo eta ekoizpena/Video y producción: Jemima Cano

LABURPENEA

El último baile deitzen da Eva Guerreroren proiektu berria. Dantzaz, oroimenaz eta igarotako denboraz hitz egiten du. Pertsona baten bizitza kontatzen du, bizitako zenbait momentu gogora ekarrita, elkarriketa errealean, artxiboko irudien eta berriz bizitako musikan oinarrituta. Dantza garaikideko ikuskizun bat da, zuzeneko testuarekin eta musikarekin, eta, adinekoei egindako elkarriketa zati ugari txertatzen ditu.

KONPAINIA

“DOOS” Bilboko talde artistiko bat da, Eva Guerreroren dantza garaikideko ikuskizunak eta dantza pertsona eta testuinguru gehiagotara hurbiltzeko bestelako proiektuak ekoizten dituen. 2013an sortu zen Bilbon, eta, 2017an, Karrikan saria lortu zuen. Horrez gain, hiru aldiz hautatu dute MAX sarietarako. Emakumeek osatutako kolektiboa da, eta bere lerro artistikoak zuzeneko adierazkortasuna du ezaugarri, zeinak dantza ikusteko ohitura gutxi duten pertsonekin konektatzen baitu.

SINOPSIS

El último baile es el nombre del nuevo proyecto de Eva Guerrero. Habla de danza, de memoria, y del paso del tiempo. Narra la vida ficticia de una persona que recuerda diferentes momentos de su vida apoyándose en entrevistas reales, en imágenes de archivo y en músicas revisitadas. Será un espectáculo de danza contemporánea con textos y música en directo, hechos con retazos de múltiples entrevistas a personas mayores.

COMPAÑÍA

“DOOS” es un colectivo artístico de Bilbao que produce los espectáculos de danza contemporánea de Eva Guerrero y otros proyectos para acercar la danza a más personas y contextos. Creado en 2013 en Bilbao, ha obtenido el premio Karrikan 2017 y ha sido candidata 3 veces a los premios MAX. Colectivo formado por mujeres, su línea artística se caracteriza por tener una expresividad directa que conecta con personas poco habitadas a ver danza.



HARREMAN

ENBOR(R)RAK



IGANDEA 20
DOMINGO
19:00
CÚPULA TEATRO
CAMPOS

Dramaturgia/Dramaturgia: Paula Gironi, Cristina Hermida

Zuzendaritza/Dirección: Paula Gironi

Zuzendaritza-laguntzailea

Ayudante de dirección: Cristina Hermida

Antzezleak/Intérpretes: Paula Gironi, Daniel Guerro, Sáhara Peña

Eszenografia/Escenografía: Cristina Hermida

Soinu Espazioa/Espacio sonoro: Álvaro Mansilla

Argiztapena/Iluminación: Edgar Calot

Ikus-entzunezkoak/Audiovisual: Micaela Portilo

Jantziak/Vestuario: Claudia Ambrona

Laguntzak/Apoyos: Ayuntamiento de Bilbao, Ayuntamiento de Gorliz

Eskerrak/Agradecimientos: Festival BAD

90 min

DANTZA-ANTZERKIA
DANZA-TEATRO

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto
Euskadi

ERABATEKO ESTREINALDIA
ESTRENO ABSOLUTO

LABURPENA

Estamos en una plaza. Herri bateko plazan. Enbor bat dago.

Doinu bat entzuten da. Dantzan ari dira.

Txalaparta ala techno?

Estamos en una plaza. Tradizioak daude. Jantziak daude, bazkariak, banderak.

Estamos en una plaza. Sustraiak daude. Zatiketak daude. Enbor bat dago.

Bi mutur daude.

Iragan bat dago, orain bat, eta borroka bat.

Plaza batean gaude. Estamos en una plaza.

Bi lekuren arteko leku batean gaude.

Zer nahiago duzu, bonbardatzea ala bonbardatua izatea?

KONPAINIA

Umeen hezkuntzan graduatua (EHU), eta Arte Dramatikoko diplomatua, William Layton laborategian, Antzerki Sorkuntzako Masterra egin zuen Juan Mayorgaren zuzendaritzapean. Claudia Castellucci, Carlos Tuñón, Iara Solano eta Natalia Fernandes mailako profesionalekin osatu du bere formazioa. *De sexual e -idad* antzerkiaren sortzailea da, Madrilen estreinatu zena 2022an.

“La Colé” dantza-konpainiako kidea da, baita “Incierta Incertidumbre” eszena kolektibokoa ere, eta El hervidero (Irakitegia) proiektuan parte hartzailea.

Paula Quintanak edo Sol Picók ekoiztitako hainbat konpainiarekin lan egin izan du Teatro Español eta Conde Duque antzokietan, eta RTVEek ekoiztitako zenbait ikus-entzunezkoetan parte hartu du.

SINOPSIS

Plaza batean gaude. Estamos en una plaza. La plaza de un pueblo. Hay un tronco.

Suena una música. Se baila una danza.

¿Txalaparta o Techno?

Plaza batean gaude. Hay tradiciones. Hay trajes, comidas, banderas.

Plaza batean gaude. Hay raíces. Hay escisiones. Hay un tronco.

Hay dos extremos.

Hay un pasado, un presente y una lucha.

Estamos en una plaza. Plaza batean gaude. Estamos en una plaza. Plaza batean gaude.

Estamos en un lugar entre dos lugares.

¿Qué prefieres, bombardear o ser bombardeado?

COMPAÑÍA

Graduada en Magisterio Infantil (UPV/EHU) y diplomada en Arte Dramático por el Laboratorio William Layton, cursa el Máster de Creación Teatral dirigido por Juan Mayorga. Completa su formación junto a profesionales como Claudia Castellucci, Carlos Tuñón, Iara Solano y Natalia Fernandes. Es creadora del montaje teatral *De sexual e -idad* estrenado en Madrid en 2022.

Es integrante de la Cía de danza “La colé”, del colectivo escénico “Incierta Incertidumbre” y del proyecto El hervidero (Irakitegia).

Ha trabajado con distintas compañías producidas por Paula Quintana o Sol Picó en el Teatro Español y Conde Duque, así como en producciones audiovisuales en RTVE.



CAMÍNATE PROIEKTUA

PLAÑIDERAS. HISTORIA DE CONVERTIR
UNA TRAGEDIA EN PRODUCTO



ASTELEHENA 21
LUNES
19:00
HARROBIA

Sortzaile eta zuzendaria

Creación y dirección: Oihana Varela

Koreografia eta mugimendu zuzendaritza laguntzailea

Ayudante de dirección de coreografía y movimiento: Erick Odriozola

Eszena eta argien zuzendaritza laguntzailea

Ayudante de dirección de escena e iluminación: Irisa Lialia

Koreografia sorkuntza eta antzezleak/Creación coreográfica e

intérpretes: Mafalda Saloio, Denis Martínez, Eneko Gil, Erick Odriozola

Kanpo begirada/Ojo externo: Pierre Henrion

Musika/Música: Alwynne Pritchard, Thorolf Thuestad

Jantziak/Vestuario: Xabier Mujika

Eszenografia/Escenografía: Yagoba Eguizabal

Argazkiak/Fotografía: Fabrizio Barra

Bideoa/Video: Etanowski

Kolaborazioa/Colaboración: Aullidos de Otxar

55 min

DANTZA
DANZA

Gazte eta helduentzat
Público joven y adulto

Euskadi

Elebitan
Bilingüe

LABURPENA

